



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA.

Bat etorri maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, kontsulta publikoa egin behar da goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei, honako gai hauei buruz:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betetzeko, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari buruzko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abuztuaren 3ra arte, *aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.*

AURREKARIAK	Pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari buruzko araudia.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Salbuespena hedatzea Eusko Jaurlaritzak ematen dituen zenbait laguntzatarara, eta jada araututa dauden beste batzuk eguneratzea.



ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Zerga araudia egindako aldaketen arabera eguneratu beharra dago.
HELBURUAK	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudia aldatzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago egokiago iritzitako alternatibarik.